

EPE ereduak eta plazen kopurua

Negoziatu. Egungo egonkortze-prozesuak, 2024ean amaitu ondoren, hutsik dauden egiturazko lanpostuak langile finkoz betetzeko lekualdatze lehiaketak egingo dira. Hiru urtean behin EPEan bakante guztiak eskaintzea

Gazteberritze planak

60 urtetik gorako langile guztientzat aztertu eta adostu, erretiro aurreko urteak arintzeko neurriak hartuz.

Behin-behinekotasun tasa

%5etik igoko ez dela jasotzea.

Ordezkoak

Ordezkoen araudia negoziatu. Besteak beste 165 egun lan eginez gero udako kobraketa eta puntuazioa lortu



LABek 2023ko ekainean Hezkuntza Sailarekin sinatutako Akordio Laboralak (Lotura) negoziatorako bideak ireki eta Hezkuntza Saila sindikatuokin edukien gaineko adostasunetara iristea ahalbideratu digu.

Orain, langileen ordezkaritzaren gehiengoak eduki hauek babestu eta Lan Hitzarmen berri batean egikaritzeko aukera zabalik dago. LAB lanean ari da 2004koa den Lan Hitzarmena baino hobea lortzeko!

Era berean Funtzio publiko osoan grebetan eta borrokan jarraituko dugu soldatari dagozkion gaiak Euskal Herrian erabakitzeko!